ASTEKARIA - 2012ko maiatzaren 18an - XVI. urtea - Usurbil, 490. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

# Noaua!!



30 urtez, Usurbil-Arantzazu ibilbidea osatzen



## Irabaziak dituen enpresa izan arren, Enplegua Erregulatzeko Espedientea Michelinen


Sarreren salmenta
kutxa
bastero
KULTURGUNEA
Txintxeta produkzioak
BODOLOGUAK
MAIATZAK 25, ostirala, 21:30h auditorioan
ANDOAINGO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Info: 943 303 540 www.andoain.org


USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak
www.lhusurbil.com
Maiatzak 12 eta 19
ATE IREKIAK
943 36 46 00


PREST
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA
ATE IREKIAK
Inskripzio epea zabalik!
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Graduen, Unibertsitate Masterren eta Graduondoen aurkezpena
Eskoriatza MAIATZAK 26 larunbata, 11:00
Gastronomia Zientzien Fakultatea
Donostia MAIATZAK 26 larunbata, 10:30
ARETO NAGUSIAN
Etorri aurretik izena eman!
Goi Eskola Politeknikoa Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusia
Arrasate EKAINAK 9 larunbata, 10:30
902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Albistea iruditan!!

# Herri kirol festa, San Ixidro egunez

Asteartea, maiatzaren 15a genuen San Ixidro Eguna. Aste tartez egokitu arren, herritar ugari bertaratu ziren lehenbizi mezetara eta ondoren, Dema plazan ospatu zen herri kirol jaialdira. Harri jasotze saio, zaldi dema eta aizkolarien lehia gertutik ikusten hasi aurretik, haragi edota txorizo pintxoez horniturik antolakuntzak plazan bertan jarritako mahaian, hamaiketako goxo askoa dastatu ahal izan zuten. Sabela beteta herri kirolen txanda etorri zen. Giro bikainean burutu ziren, tartean herritarrak protagonista izan zituen saioak; besteak beste, Arrilla aita semeak edota Dorronsoro. Artzabalen ospaturiko bazkari baten bueltan borobildu zen eguna.



ARTZABALEN, BAZKARI BATEN BUELTAN BOROBILDU ZUTEN EGUNA.

## Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 943 372 001 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KzGunea | 943 023 684 | Oa botika | 943 376 076 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAN
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

# Agur glamourra!

Apirila euritan pasa ondoren zein gustura hartzen den eguzkia, ezta? Dagoeneko uda usaia hartzen diegu egunei eta oporrekin amesten hasten gara: lasai esnatu, paseotxoak eman itsaso ixkiñean, leku berriak ezagutu... Beno, ba hori guzti hori nahikotxo konplikatzen da etxean txikiak dituzunean.

Lehenik eta behin, egutegia dago. Hau da, haur eta gurasoen oporrek ez dute normalean bat egiten. Beraz, ekaina aldera, guraso eta amonen agenden arteko puzzlea osatu behar da. "Zuk aste honetan goizez ezin dezu, beraz, arratsaldean zure kargu eta goizean amonari esango diogu" edo "Goizean nere kontu aste honetan, baina juxtu bihar bilera garrantzitsu bat det eta amonari esan beharko". Egin nahi adina konbinazio. Komodina beti amona.

Goizetan lasai ohean. Gurean berdin du asteguna, asteburu edo abuztu izan; EGUNERO, gure txikia 7tan esnatzen da. Suerte handiarekin, 7.30etan. Arbaso inglesaren bat eduki behar du, zer bestela ezin da entenditu horrelako puntualitate britanikoa! Baina halere okerrena da, nahiz eta hain goiz esnatu, 11ak baino lehen ezin izaten dugula kalera atera, beti falta delako zerbait egiteko; edo baten zapatilla ez da agertzen, edo besteari bodya aldatu behar zaio gosariarekin zikindu duelako... buf!

Kanpora ateratzearena. Zein errexa zen garai batean oporretarako prestatzea: erropa pixka bat, nezeserra, dokumentazioa eta dirua. Baina orain? Orain koaderno bat hartu eta errege Godoen izenak baino zerrenda luzeagoa idatzi behar dut. Zaharrenarentzat erropa konjuntoa, jostailu kuttunak, asmarentzako botikak, biderako hamaiketako/merienda, eguzkitako protekzio berezia, e.a. Txikiarentzat, dozenaka bodyak, pure eta papillentzako termoak, ehunkada pardel, ipurdiko krema, jostailu kuttunak, aulkitxoa... Zer gertatzen da azkenean? Ba zure gauzentzat ez dagoela tokirik, eta galtza bat eta bi nikirekin konpondu behar duzula 15 egunetan. Agur glamourra!

Ea oporren bueltan zer.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - **Idoia Torregarai**

Ika-mika

# Ekainaren 2an: Merkatu Txikia

Guraso agurgarriak, datorren ekainaren 3an Udarregi Eguna ospatuko dugu Usurbilen. Egun horren baitan, hurrengo aste osoan zehar hainbat ekitaldi antolatu dira.

Haur Eskolako Gelaburuen bileran, Ikastolaren Egunean gurasook zerbait berezia ere egin genezakeela pentsatu genuen, eta hori dela eta, iaz bezala, ekintza bat proposatzen dizuegu Haur Eskolako guraso guztioi: ekainaren 2an larunbata Merkatu Txikia egitea. Etxean erabiltzen ez ditugun gure txikien gauzak (arropak, jostailuak, puerikulturako tresnak, aulkitxoak e.a.) ekarri eta behar dituenari eman eta zerbait behar baldin badugu, hartzea.

Doan izango litzateke dena.

Haurdun zaudeten familiak ere lasai etorri, falta zaizuen hori topatu dezakezue eta!

Era honetan, festa giroan eta gure txikiekin batera, guztiok batera ekimen eder bat egin dezakegu.

Horretarako nahikoa duzue ekainaren 2an 10:00etan Haur Eskolako psikomotrizitate gelara etortzea etxean dagoeneko behar ez duzuen material horrekin (erabiltzeko moduan egon behar du).

Tartean, hamaiketako goxo bat egingo dugu.

Animatu goiz eder bat pasatzera!

**Haur Eskolako Gelaburuak**






# Gero eta gehiago dira
## gida baimena euskaraz ateratzera ausartzen direnak



POTXOENEAN AURKEZTU ZEN KANPAINA BERRIA.

**G*ida baimena euskaraz* kanpainari esker, gero eta gehiago dira animatzen ari direnak. Aurreko astean, Usurbilgo Potxoenea kultur etxean prentsaurrekoa eskaini zuten udal zein auto-eskolen ordezkariek. Zenbakitan, 2010etik 2011ra ia bikoiztu egin da gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz prestatu eta azterketa hizkuntza berean egin dutenen kopurua. 2010ean 47 lagunek formazioa euskaraz jaso eta azterketa teorikoa hizkuntza berean egin zuen. Horietatik 34k gainditu zuten. Iaz, 94 matrikulatu ziren euskaraz, 88 aurkeztu ziren euskarazko azterketara eta hirurogeik gainditu zuten.**

Datuok, 2009az geroztik, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek, eta jarraian aipatzen diren udalerriotako 11 auto eskolek eginiko lanketaren emaitza dira; Andoaingo Mendi eta Bengoetxea; Astigarragako Otamendi; Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi; Lasarte-Oriako Izarra, Mugica eta Lasarte; Urnietako Solozabal eta Usurbilgo Solozabal auto eskolen ahaleginaren ondorioa.

### Zati praktikoa euskalduntzea, hurrengo erronka

Duela hiru urte hain zuzen, auto eskola guztiok zerbitzua euskaraz eman ahal izateko bitartekoak jartzen lagundu zieten Buruntzaldeko udalei; multimedia, liburuak… Horri esker, gaur egun gidabaimenaren alderdi teorikoa euskaraz prestatu eta azterketa ere euskaraz egin daiteke.

Baina ez da hemen amaituko Buruntzaldeko udal eta auto eskolen arteko elkarlana. Aurrera begirako euren erronka, gidabaimenaren alderdi praktikoa ere euskalduntzea da. Eta herritar oro, modu berezian 18 urte bete dituzten gazteak, zati teorikoa euskaraz egitera bultzatzea.

### Zozketan, 400 euroko saria

Horretarako hain zuzen, Buruntzaldeko udal eta auto eskolen egitasmoaren berri ematen duten diptikoak banatuko dituzte, aurten 18 urte beteko dituzten Buruntzaldeko gazteen artean. Ohartarazi dutenez gainera, iaz bezala, aurten ere, azterketa teorikoa euskaraz prestatu eta egiten duten gazteen artean, auto-eskola bakoitzeko gidabaimeneko alderdi teoriko bat zozketatuko da. Auto eskola bakoitzak, gehienez jota 400 euroko saria banatuko du.

## Zumarte Musika Eskolan
## matrikulatzeko garaia

Maiatzaren 28an irekiko da matrikulatzeko epea Zumarte Musika Eskolan.

**Egunak:** Maiatzak 28-Ekainak 1.
**Ordutegia:** Goizez (egunero, astelehena ezik): 11:00-13:00. Arratsaldez (egunero): 16:30-19:30.
**Informazioa:** Kale Nagusia, 45. 943 37 15 94 / www.zumarte.org
**Ikasgaiak:** Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, tronboia, bonbardinoa, saxofoia, biolina, biola, perkusioa, klarinetea, abesbatza, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, talde instrumentalak.
**Gutxieneko adina:** 4 urte.









## KALEBERRI

ANA URDANGARIN

# Motorrak berotzen!



Iritsi da maiatza!!! Denok horrenbeste desio genuen eguzkia ere goxo- goxo etorri da hilabete berriarekin batera. Loreak paisaiari edertasun puntua emanaz kolorez jantzi dira, erleei bide emanaz beren lanak ederto egiten hasteko. Udaberriak usai berezia du, freskotasun handiz etortzen bada ere, epel puntua izaten du egun askotan. Metafora gisa erabiliz, maiatzean izaten dugun festa handiaz ezin hitz egin gabe pasa, bero bero etortzen baita Sagardo Eguna gurera.

Maiatzaren hirugarren igandean ospatzen dugun egun handi honek aurretik ordea, motorrak berotzen joateko gogoz izaten gara. Horrela izateko, pasa den larunbatean mozorro festa antolatu zen Irrati tabernan. Jakin badakigu jendeari asko kostatzen zaiola egun arrunt batean ohikoa ez den jantziekin kalera irtetea. Uste nuen jende gehiago ausartuko zela mozorrotzera, baina usteak erdi ustel!!!

Gauzak ohiko datetan egitea aspergarria da, datetatik kanpo egiteak du grazia. Eskerrak batzuk afrikarrak bihurtu ginela momentu batean, eta giro ederrean, motorrak berotzeko aukera izan genuela!!!

Ondo pasa Sagardo Egunean eta saiatu gure herria txukun uzten, eredu izan behar dugu, inoiz baino gehiago!!! Ikusi arte. Ondo izan.

## ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

# UDA-berrian



Atzean egun ilun, arratsalde euritsu eta goiz tristeak. Udaberriak bere edertasunaren keinua egin digu azkenean! Batzuontzat beroegia, beste batzuentzat hain desiatua. Adio galtza luze, eta txamarra lodiei. Ongietorria, pirata eta txankletei! Hau gutxi balitz, begi bistan usurbildarron festa.

Urteko festa haundia. Nire festa maitea. Gure festa desiatua. Hemen natorkizue urtero lez, zain zuen dastamenerako. Tabernak zain, beraien "abuztu" partikularrerako. Eta usurbildar askorentzat, muxutruk (eta gogo biziz) lan egiteko desioa.

Harro sentitzen naiz, horrelako egunetan festa honen protagonista izateaz. Baina protagonistak usurbildarrak zarete. Zuek, herritarrok, usurbildarrrok, herriarentzat, Usurbilentzat egiten duzuen festa baita. Gustua ematen du heldu, ume, zein gazte, helburu berdinagatik traineru berdinean palaka ikustea. Ziaboga egin eta buelta (mareoak hurrengo egunean izan ohi diren arren!).

Horrelako egunetan zuen alkate izateak harrotasunez eta bizi-pozez betetzen nau. Iritsi da. Hau da momentua. Gozatu egunaz eta ez ahaztu hurrengo goizerako "spidifen" dosia izateaz, (herriko farmaziek ere beren "abuztua" ere egiten dute eta!). Gora Usurbilgo Sagardo Eguna! Gora!

## SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

# Udaberri eroa



Zuetako norbaitek asmatuko al luke ze urtaroan gauden egutegia begiratu gabe? Nik behintzat kale egingo nuke. Udaberri garaian ero punttua izaten dugula esan ohi da eta ez da harritzekoa, eguraldia kontutan hartzen badugu. Denetarik izan dugu, hotza, haizea, euria, beroa... Eta dena egun gutxiren tartean. Gaur manga motzetan, bihar jertsearekin ere hotza... Eta igandean zer? Ba berriro ere Sagardo Eguna gainean dugula, eta usurbildarrentzat bereziki egun handia. Behin esan nizuen, kanpoan bizi diren auzotar batzuk ere, egun horretan azaltzen direla eta aurten ere bat baino gehiago azalduko da bai. Halere, badakit batzuk nazkatuta bukatzen dutela hainbeste jende tartean ibiltzeaz, eta egia da batzuetan ez dela erraza izaten, baina azken urteetan ez dut uste halako jendetzarik bildu denik, ea igande honetan zerekin aurkitzen garen. Eta auzoan zer? Ba begira, azkeneko larunbatean, txirrinda hartu eta auzotik buelta bat eman nuen, eta nahiko triste ikusi nuen. Ez zegoen inor, ez frontoian, ez eta parkean edota eskubaloi zelaian ere, eta ez zegoen halako eguraldi txarrik. Gure txikitako garaian, horrelakorik ez eta...

## ZUBIETA

DENIS ELORTZA

# Pout-pourri



Albiste-gai potoloen faltan, honatx Zubietako martxaren berri emango dizuen zizka-mizka, on egin guztioi:

Bat. Andatza Egunean zubietar mordoxka bat joan zen Andatza gainera eta horietako batzuk Lertxunditik gora antenara doan Santiobide ireki berria estreinatu zuten. Bazen garaia!

Bi. Eskola Txikikoak kultur astea atzean utzi eta ikasturte amaiera ari dira prestatzen: gamusinoen gaua, Eskola Txikien Larraulgo festarako egun-pasa…

Hiru. Herri Batzarraren deiari jarraiki, autokonpostatzeko hainbat ontzi eskatu eta jaso dugu zenbait herritarrek. Bestalde, Zubieta Lantzenek "Errausketari ateak ixten" dokumentala eskaini du Kaxkapen.

Lau. Eguraldiaren petralkeriak petralkeri, uda usaina gerturatzen ari da eta udarekin batera, festa usaina. Eta batzuk hasi dira jada koreografiarako musika aukeratzen.

Bost. Tropela.net webgune arrakastatsuan "zubietalantzen" taldea badugu eta Giro-ko apustuetan Xabier Arregi dago tropelburu, oraingoz…

# D3M-Askatasuna epaiketaren aurkako elkarretaratzeak

**D3M eta Askatasunaren aurka asteotan Espainiako Auzitegi Nazionalean burutu den epaiketa salatu eta auziperatuei, tartean Agurtzane Solaberrieta usurbildarrari, babesa adierazteko egun osoko txandakako elkarretaratzeak burutu ziren larunbatean. Goizeko 11:00etan hasi eta 21:00ak arte luzatu ziren, Mikel Laboa plazan eginiko mobilizazioak.**

Orduotan, eragile desberdinek parte hartu zuten; mobilizazio hauen eta azken asteotako beste hainbat ekimenen deitzaile izan diren "Eskubide guztiak proiektu guztientzat" sostengu taldeko kideek, Usurbilgo Udaleko Bildu eta Aralarreko ordezkariek, Usurbilgo Ezker Abertzaleak, agiñarrek, Gernika-Usurbil Taldeak, Haur Eskolako gurasoek, Kantu Taldeak, Etxerat edo Herrira bilguneek eta ITAYA Gazte Asanbladak.



Larunbatean, egun osoan iraun zuen elkarretaratzeak.

Goiko irudian hain zuzen, txandakako elkarretaratzeei hasiera eman zien sostengu taldeko kideak dituzue. Azken kontzentrazioan, 20:00etatik 21:00etara herritarrek parte hartu zuten.

Elkarretaratzeok D3M eta Askatasunaren aurkako epaiketa amaierara heldu den honetan burutu dira. Hasiera batean, epaiketaren azken saioak ostegun eta ostiral honetan burutzea aurreikusia dago. Baina egutegi hau aldatu liteke egunotan.

# Bateraguneko epaiaren aurka



Espainiako Auzitegi Gorenak Bateragune auziari loturiko epaia kaleratu zuen joan den asteazkenean. Auziperatuak, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Harkaitz Rodriguez eta Miren Zabaleta ez dituzte absolbitu, espetxe zigorrak murriztu dizkiete. Hamar urtetik sei urte eta erdira Otegi eta Diezi, eta zortzitik seira, Jacinto, Rodriguez eta Zabaletari. Epaia salatzeko hainbat mobilizazio burutu dira asteburuan, Euskal Herriko hiriburu eta udalerrietan. Usurbilgo Ezker Abertzaleak deituta, elkarretaratzea burutu zen ostiralean Mikel Laboa plazan.

## Donostiako Olatu Talka Usurbilen ere ospatu zen

Olatu Talka izeneko ekimenak Urko Menaia bakarlaria ekarri zuen Artzabalera (argazkian). Emanaldia, Gure Pakea elkarteko egoitza sarreran eskaini zuen ostiral arratsaldean. Jarraian, Ardi Beltz-en Dúo Jasmine taldearen emanaldia burutu zen.



Urko Menaia Artzabalen.

## Txalaparta eta trikitixa doinuak, kalea girotzen

Larunbatean Oiardo Kiroldegian ospatu zen Ruper Ordorikaren emanaldiaren aurretik, kalejira burutu zen arratsaldean Kaxkoan zehar. Txalaparta eta trikitixa doinuek girotu zituzten afalaurreko orduak, Jexux Artze Kultur Elkarteak antolaturiko hitzorduan.



Larunbatean aritu ziren herria girotzen.

## Maixu Etxeko pisurako izen ematea, azken egunetan

Usurbilgo Udalak berriki alokairu sozialera bideratu duen Maixu Etxeko pisuetako batean maizterra hautatzeko izen emate epea zabaldu du, maiatzaren 23ra arte. Apuntatze orriak eta prozesu honi buruzko oinarrien inguruko azalpenak, udaletxera gerturatuta jaso daitezke.

### Michelingo zentro artekoan gehiengoa duten sindikatuek

# Enplegua Erregulatzeko Espedientea onartu dute

**Zentro artekoan gehiengoa duten sindikatuek (CCOO, UGT eta CSI) Michelinek aurkezturiko Enplegua Erregulatzeko Espedientea (EEE) onartu dute. Aldaketarik ez bada, hedabideen arabera, Espainiako Gobernuko Lan Ministerioak oniritzia eman eta berehala indarrean egongo da, irailaren 30era arte. Suspentsiozkoa izango da, hau da inor ez dute kalera botako, baina LAB sindikatutik adierazi dutenez, langile bakoitza 36 lan egunez langabeziara bidal dezakete. Sindikatu abertzalea espediente honen aurka agertu da. Baita, ELA, ESK eta CGT ere.**



MICHELINGO LANGILEEN ELKARRETARATZEA, JOAN DEN UDAZKENEAN.

Albistea ostiralean eman zen ezagutzera. Astebete lehenago Michelingo zuzendaritzak estatuko lau lantegietan aurkezturiko Enplegua Erregulatzeko Espedientea onartu dute. Lan espediente honek zer nolako eragina izango duen LAB sindikatuko ordezkari Josu Portuk azaldu dio NOAUA!-ri, "langile bakoitza, asko jota 36 lan egunez langabeziara bidal dezakete".

> **JOSU PORTU**
> "2011n Michelin talde osoak ia 1.500 milioi euro irabazi izan zituen, 2010ean baino %40 gehiago"

EEE hau irailaren 30era arte indarrean egongo da. Bitarte horretan, Jarraipen Batzorde bat sortuko da eta Porturen esanetan, "astero edo bi astean behin elkartu eta langileei informatzen joango dira, zer egunetan itxiko dugun, zer egunetan ez". Jarraipen Batzorde horretan, negoziazioetan parte hartu dutenak baino ez dira egongo.

Espainiar estatuko lau lantegietako ia behargin guztiei eragingo die joan den ostiralean, zuzendaritzak eta zenbait sindikatuek Arandan harturiko erabakiak. Lasarte-Oriako plantak esaterako, 585 langile inguru ditu eta espedienteak 523 langileri eragingo diela berri eman du LAB sindikatuak.

### "Ulertezin eta justifika ezina"

Euren esanetan, enpresako zuzendaritzak ekoizpen beherakada jasan duela dio, baina Porturen esanetan, "ez dute argumentatzen zergatik den". Hori gutxi balitz gainera, hor dago 2011ko enpresako balantzea. "Ekonomikoki behintzat, EEE honek ez du justifikaziorik. 2011n talde osoak ia 1.500 milioi euro irabazi ditu, 2010ean baino %40 gehiago. Joera goranzkoa da. Aurten dakigunez, taldeak %5 gehiago fakturatu du aurreneko hiruhilabetean", adierazi du Portuk.

## "Lan Erreforma bere onurarako ari da aprobetxatzen Michelin"

Datuak eskutan, LAB sindikatuko ordezkariak gertatzen ari denaren inguruan honako irakurketa egiten du. "Michelin erreforma bere onurarako ari da aprobetxatzen, azkenean diru publikoaz aprobetxatzen ari dira bere onura ekonomikorako. Benetan salagarria eta larria", adierazi du. Kasu honetan ez da ahaztu behar hain zuzen, espainiar gobernuak onarturiko lan erreforma berriak isla izan duela. Orain, enpresako zuzendaritzak lan espedienteak negoziatzera derrigortuak ez baitaude, "orain enpresak Delegaritza informatuta bakarrik, automatikoki EEE-a aplika dezake". Lehen ez, LAB sindikatuko ordezkariaren esanetan, Michelingo zuzendaritzak "beste bitarteko batzuk erabiltzen zituen, barne akordioak, malgutasunari loturikoak. EEE batera ez ziren ausartzen, negoziatu beharra zutelako, garai hartan agian zailagoa zelako. Gaur egun ordea, lan erreformarekin ez du negoziatu beharrik. Azkenean enpresak erabakitzen duena aurrera doa".

## Jon Lopez, Michelin enpresako langilea

# "Langile askok espediente hau ez dute ulertzen"

**NOAUA! Zer sekziotan lan egiten duzu?**

**Jon Lopez.** Gurpilak egiteko produkzioan ari naiz. Makina berrietan, 50 bat langile egongo gara. Beste sekzio bat dago makina zaharrekin eta han beste 40 bat. Gurpilen produkzioan, denera 100 bat langile egongo gara.

**N. EEE honek zer eragin du zuengan?**

**J. L.** Langile batzuk oporrak izango balira bezala ari dira hartzen. Beste batzuk, neure taldean daudenak, erreta daude, EEE hau ez dute ulertzen. Orain egunak sartzen ari gara. Errekorrak egiten ari gara eta bat batean EEE bat sartzen digute. Jendea pixka bat galduta dago.

> **JON LOPEZ**
> "Hilabete hauetan errekorrak hautsi dira eta orain, EEE honekin, deskolokatu egin gaituzte"

**N. Hileotan, lehendik zor zenituzten lan egunak betetzen eta orain, bestetik egun batzuetarako langabeziara bidaliko dizuen EEE bat duzue?**

**J. L.** Aurreneko hilabete hauetan egun piloa sartu dugu, gurpil piloa egin da, errekorrak hautsi dira eta orain bat batean EEE bat sartuta, deskolokatu egin digute. Sentsazioa hori da, engainatuta bezala gaude, neure lan txandakoen artean behintzat.

**N. Jarraipen Batzorde bat sortuko da. Langileok noraino izango duzue hitza hartzeko aukera?**

**J. L.** Langileak ez du eskumenik, ez du erabakitzeko aukerarik.

**Josu Portu.** Erabaki gunea zenbat eta gehiago urrundu, badirudi oso ondo ez dakigula zeinek erabakitzen duen EEE aplikatzea, erabakitzen duena ez dago zurekin lanean. Gobernu batek erabaki bat hartu eta herritarrari eragiten dionean, sentsazioa halakoa da. Oso urrun dagoen batek hartzen du erabakia. Babesgabetasun sentsazioa dugu.

**N. Nola ikusten duzue lan etorkizuna? Kezka handiagoa da egun?**

**J. L.** EEE honen ostean, orain pentsatzen jartzen naiz hurrengoa zer izango ote den. Batzuetan pentsatzen jartzen naiz, lantegia itxi egingo ote duten.



JOSU PORTU ETA JON LOPEZ, MICHELINGO LANGILEAK.

**N. Baduzue jada EEE eta halako egoeretara ohitu garen sentsaziorik?**

**J. P.** Berregituratzea, EEE erraldoi bat izan zen, hainbeste lanpostu galdu ziren. Zuzendaritzak "lehiakortasuna hobetzeko plana" izena jarri zion. Baina EEE bat izan zen. Azkenean tristeki ohitu egin gara EEE hitza entzutera. Hasieran zirrara sortzen zuen, komunikabideetan ere askotan berri ematen zen. Gaur egun ordea, jendea ez da aurka egiteko planteamenduarekin ikusten.

**J. L.** EEE-ak 2008tik aurrera hasi ziren sartzen. 2012an gaude eta pentsatzen duzu, garai honetan ez dutela EEE bat sartuko, okerrena pasea egongo dela. Eta orain, egoera ikusita arduratuta gaude. Zerbait normala da EEE-ena. Beldurtzen ari gaituzte, ezin dela kontra egin bestela okerrago izango dela.

## Sindikatuen jarrera desberdinak

Enpresako zuzendaritzak aurkeztuériko espedienteak bi blokeetan banatu ditu langileak ordezkatzen dituzten sindikatuak; batetik, EEE negoziazioaren alde egon eta gehiengoa duten CCOO, UGT, CSI daude. Bestetik, LAB, ELA, ESK eta CGT. Hauek espedientea ez zuten onartzerik nahi eta horren aurka, "batasun sindikal bat bilatzea", hori zen euren asmoa. Aipatu moduan, gehiengoa duten sindikatuek, EEE-ak eraginda lanik egiten ez den egunetarako konpentsazio ekonomikoa negoziatu dute enpresako zuzendaritzarekin. "Enpresak %70 ematen zuen, CCOO eta beste sindikatu batzuk %90 eskatzen zuten eta erdibidean geratu dira %80an. Beste guztia, enpresak nahi zituen terminoetan geratu da", adierazi du LAB sindikatuko ordezkariak.

### Etorkizuna, ez oso argi

Azken urteotako gertakarien ostean, EEE honek langileak ez ditu ezustean harrapatu. Berregituratze nabarmena egin zuen Michelinek duela urte gutxi, iaz lan hitzarmena onartzeko gorabeherak izan zituzten. Hainbat mobilizazio burutu zituzten udazkenean eta urte amaieran, Porturen esanetan,"bi urtetarako soldatetan igoerarik ez aplikatzea erabaki zuten. Aurrekoarekin alderatuta, nahiko hitzarmen txarra".

Orain EEE hau indarrean egonda, aurrera begira, "ez dakigu enpresa nondik aterako zaigun. Ez dugu baztertzen enpresak beste EEE bat sartzea". Bide honetatik aurrera jarraitzeko, enpresako zuzendaritzak zailena egin duela diote.

# "Baietz gurean", lan mundua euskararen bidean

**Euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sektore guztietara hedatzeko etenik gabe lanean dabiltza Buruntzaldeko udaletako euskara lansail guztiak. Elkarrekin eta elkarlanean ari dira zeregin horretan, gainera. Apirilean "Baietz gurean" euskara lan munduan txertatzeko ekimena aurkeztu zuten.**

Pablo Barrio Lasarte Oriako alkateak aurkezle lanak egin zituen, "jakina den bezala Buruntzaldeko udalen aldetik euskararen erabilera sustatzeko programa ezberdinak martxan daude. Horien artean "Baietz gurean" aipatu beharra dago, kasu honetan Buruntzaldeko enpresetan euskararen erabilera normalitzatze aldera". Ekimena aurkeztearekin batera, hitz horiekin eskualdean bat egin zuten sei enpresen sinadura ekitaldiari hasiera eman zion.

Gaur egungo gizartean hizkuntz bat baino gehiago erabiltzea ezinbestekoa da, are gehiago enpresaren kasuan: gaztelania, ingelesa, frantsesa eta, noski, euskara. Hizkuntzaren kudeaketa egokia egitea enpresaren jarduna kalitatezkoa den ala ez neurtzeko aldagaia da.

## UDALEN BABESA

Eskualdeko enpresatan euskara planak abian jar daitezen, Buruntzaldeko sei Udalek asmo sendoa dute

Euskarari dagokionez, Udal administrazioarentzat kalitate planaren eta euskara planaren garapena eskutik helduta doaz. Lasarte-Oriako alkateak zentzu horretan baieztapen argia egin zuen, "Buruntzaldeko Udalok asmo sendoa dugu eskualdeko enpresatan euskara planak abian jar daitezen. Alde batetik, sustapen lan eginez eta, beste bestetik, dirulaguntzen lerroari eutsiz". 2005ean lan mundua euskaratzeari ekin zioten Buruntzaldean. Landu gabeko eremua zen eta urte gutxiren buruan aurrerapausu argiak eman dira.

Baietz gurean egitasmoaren oinarriak 2010-2011. ikasturtetik indarrean daude. Urte beteko lanaren ondoren hitzarmena sinatzeko prest dauden sei enpresa berri erakarri dituzte. Agerraldi horretan bertan Luis Intxauspe Hernaniko alkateak hitzarmenaren nondik norakoak azaldu zituen, "eskualdeko enpresek kalitate eta lehiakortasun mailarik onena eskaintzea lortu nahi dugu. Euskararen erabilera testuinguru horretan kokatu nahi dugu. "Baietz gurean" egitasmoarekin udalon eta enpresen arteko harremanak iraunkortzeko zutabeak jarri nahi ditugu. Eta, bestetik, enpresak euskararen normalizazioaren bidera erakarri ".



BURUNTZALDEKO UDAL ORDEZKARIEK, ENPRESEN ORDEZKARIEKIN ETA SINDIKATUETAKO ORDEZKARIEKIN HITZARMENA SINATU ZUTEN.

"Baietz gurean" ekimenarekin bat egitea erabaki duen enpresak lehenbizi enpresaren egoera linguistikoaren azterketa egiten du. Datu bilketa baten bidez, egoera linguistikoaren "argazkia" ateratzen dute. Datu horiek baliatuz, ehun puntuko hamar ataletan antolatutako sailkapenean, enpresa zein tokitan kokatu behar den erabakitzen dute. Gutxienetik gehienera, enpresa horren datuekin 100-1.000 puntu arteko sailkapenean sartzen da. Hamar urrats dira, beraz, euskararen erabileraren garapena neurtzeko. Erabileraren arabera, enpresa 1.000 puntu lortzeraino irits daiteke.

## Zer egin egitasmo honekin bat egiteko?

Ekimenarekin bat egiteko erabakia hartzen duen enpresak urte beteko hitzarmena sinatzen du bere herriko Udaletxearekin. Udalak euskararen aldeko bidea egin dezan 300, 500 eta 700 euro bitarteko dirulaguntzak eskainiko dizkio enpresa horri. Hitzarmena sinatu aurretik Naiara Santxiz Hernaniko Adarra enpresako kideak enpresen ordezkari gisa hitz egin zuen, "belaunaldi gazteak enpresen kudeaketaz arduratzen ari garen neurrian, hizkuntzaren erabilera beste modu batera landu behar dela konturatzen ari gara. Zergatik? Batetik, euskaraz egin ditugu ikasketa guztiak eta ez dugu enpresa euskaraz kudeatzeko inongo arazorik. Bestetik, inguruan ditugun hornitzaileak eta bezeroak bertakoak dira eta euskararen alde pausuak ematen ari direlako. Maila berean egoteko beharra ikusi dugu". Animatzen diren enpresei, eskualdeko udalen laguntza behintzat ez zaie faltako.

# Eskualdeko bost enpresa, "Baietz gurean" egitasmoan

**Iaz abiatu zen ekimenarekin bat egin dute bost enpresek: Hernaniko Adarra eta Panificadora Hernani, Usurbilgo Talleres Mecánicos Manuel Echevarria S.A., Lasarte-Oriako Comercial Hostelera del Norte eta Andoaingo Jaki-Ona. Egitasmoaren inguruan mintzatzeko lekuko aproposenak dira.**

**Buruntzaldeko enpresetan euskara sustatzea eskualdeko Udalen egitasmoa da, urtez urte garatuz doana. Lan munduan euskara sustatzeko ekinbidean, apirilaren 23an eskualdeko bost enpresek Buruntzaldeko Udal ordezkariekin "Baietz gurean" hitzarmena sinatu zuten. Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean antolatu zuten sinadura ekitaldira "Baietz gurean" egitasmoarekin bat egin duten bost enpresetako ordezkariak hurbildu ziren. Haien guztien lekukotzak, jarraian:**



LUIS INTXAUSPE HERNANIKO ALKATEA, PABLO BARRIO LASARTEKO ALKATEA, MARIAN ARANGUREN COMERCIAL HOSTELERA DEL NORTEKO ORDEZKARIA, AINARA RODRIGUEZ ANDOAINGO ALKATE-ORDEA ETA JOSE MIGUEL MUJIKA JAKI ONA ENPRESAKO KIDEA.

### NAIARA SANTXIZ
### ADARRA LAN TRESNAK, HERNANI

Enpresen arteko harremanak euskalduntzeko baliagarri delakoan, ondo baino hobeto hartu zuten Adarra lan tresnak enpresan "Baietz gurean" euskara sustatzeko ekimenean murgiltzeko gonbitea. Enpresaren izenean Naiara Santxizek borondate osoa dutela adierazi zuen, "nik neronek ikasketak euskaraz egin ditut eta hasiera batetik asmoa bagenuen, baina egunerokoak ez du laguntzen. Lan karga handia izaten da eta lehentasuna lana ateratzea zenez, asmo hori alde batera utzen nuen. Udalaren aldetik proposamena jaso nuenean, ekimenean bete-betean sartzea erabaki genuen". Martxan dira aldaketekin eta dagoeneko fakturazioan edota errotulazioan aldaketak egin dituzte.

Euskararen bidean sartzeko garaian norberaren eta Udalaren ekimenaz gain, Adarra lan tresnak enpresan eragin handia izan du inguru hurbilak ere: "euskaldunak diren bezeroen edota lankide diren enpresen aldetik jaso genituen euskaraz lan egiteko eskaerak. Fakturak, adibidez, euskaraz bidaltzeko eskaerak jaso genituen".

Ingurua ere ezinbestekoa da, beraz, enpresaren jarduera euskararen bidetik eramateko garaian.

### HIBAI ARIZTIMUÑO
### PANIFICADORA HERNANI

Eskualde mailan udalek martxan jarritako ekimenekin bat dator, "euskararen erabilpena ahalik eta gehiago zabaltzeko saiakera ondo dago. Ongietorria izan dadila!". Dagoeneko urrats batzuk eman dituzte, "denen begietara nabarmenak diren aldaketak egiten hasi gara: kamioietako errotulazioa aldatu dugu, baina baita izen komertziala bera. Lehen Refripan zen, eta kutsu erdalduna zuenez, enpresari Sulabe izena jartzea erabaki genuen". Ez dira horretan geratuko, ez dira aldaketa horietara mugatuko. Hurrengo urratsak enpresako barne lanari begira eta hornitzaileekiko harremanei begira eman nahi dituzte.

### JOSE MIGUEL MUJIKA
### ORMA-JAKI ONA, ANDOAIN

Andoaingo Udal teknikariaren eskutik eskualdeko Udal programen berri jakin zuten, "ideia interesgarria iruditu zitzaigun. Egia esan, gure enpresan erabiltzen diren testuak erdarazkoak dira, baina euskaratzeko nahiko errazak ziren. Esfortzu txikia eginez euskaratzeko aukera genuen. Eta horrela ekin genion. Dagoeneko martxan gaude eta piskanaka ikusiko dugu noraino irits gaitezkeen".

## Iñigo Uranga, Manuel Echevarria SA (Usurbil)

Buruntzaldea mailako agerraldira Usurbilgo Talleres Mecanicos Manuel Echevarria S.A. enpresako Iñigo Uranga ordezkaria hurbildu zen. Honezkero lantokian euskaraz bizitzeko hainbat pauso eraginkor eman dituzte: "informatika programak euskaraz erabiltzen hasi gara, eta lantokiko errotulazioa euskaratu dugu. Bide batez, segurtasun neurriei dagokion informazioa ere euskaratu dugu. Hori guztiaz gain, barne kudeaketarako eta etor daitezkeen bezeroei begira gure dokumentazioa euskaratzea adostu dugu Usurbilgo Udalarekin". Usurbilgo enpresak dituen hornitzaileen %90a euskalduna dela dio.

Bezeroen artean, aldiz, Euskal Herritik kanpokoak erdaldunak dira.

# Artista bera bezain elegantea izan zen kontzertua

**Hasieratik ohartarazi zuen. "Hodeien azpian" izeneko disko berria aurkeztera etorri zela eta, batez ere, lan berriko kantuak eskainiko zituela. Eta halaxe izan zen. Kantu ezagun asko jo gabe utzi zituen Ruper Ordorikak. Baina hala ere, bertaratutakoek gogotsu txalotu zioten aurkezpen bakoitza, kantu bakoitza.**



KIROLDEGIAN EGOKITU ZUTEN TXOKOA BETE EGIN ZEN.

Juan Carlos Perezek esan zuen behin. Zure ibilbide artistikoan, originalak edo, kantu bat edo gehienez bi idatziko dituzu. Gainontzekoak, horien aldaerak baino ez dira izango. Ruper Ordorikaren kantu berrietan betiko Ruper ageri da. Bere zigilua daramate. Horregatik, Oiardo kiroldegian elkartu ziren denek, adi-adi entzun zituzten.

Kantu ezagunenak entzuteko aukerarik ez zen izan, beraz. "Ez da posible", "Fas Fatum", "Herdoilarena", "Hamabostean behin", "Zaindu maite duzun hori"... abestien arrastorik ez. Baina esandakoa, artistaren proposamena ontzat eman zen.

Izan zen salbuespenik, hala ere. Joseba Sarrionandia gogora ekarri zuen "Ene begiek" abestiaren bitartez (haren poemarekin osatutako "Martin Larralde" ere abestu zuen).

Une hunkigarriena, ordea, Mikel Laboaren "Gure bazterrak" abestiaren bertsioarekin iritsi zen. Hitz ederrak izan zituen Artze anaientzat eta, bereziki, Jexuxentzat.

## Giro polita Oiardon

Kiroldegian egokitu zen txokoa bete egin zen eta, horri esker, giro ederra osatu zen. Ikusleen artean, Jose Angel Irigaray egon zen, Ez Dok Amairu taldeko sortzaileetako bat. Hari ere aipamena egin zion Ruperrek.



# Santixabel jaietan, gin-kana egingo da Umeen Egunean

**Konturatu orduko, Santixabel jaiak hemen ditugu. Prestaketa lanak hasi dira eta gurasoak ere martxan dira. Ekainaren 28an izango da Umeen Eguna eta gin-kana prestatuko dute. Goizeko 10:00etan jarri dute hitzordua Paris etxean. Ohar honen bidez, Udarregi ikastolan ikasten ez duten haurrak ere animatu nahi dituzte, parte hartzera.**

## Haur danborrada

Maiatzaren 12an ireki zen, Santixabeletako haur danborradan parte hartzeko izen ematea. Epeak zabalik jarraitzen du. Apuntatzeko asmoa dutenek, larunbat goizeko 11:00etan Agerialdera agertu besterik ez dute.

5 urtetik gorako haurrek parte har dezakete danborradan. Antolakuntzak ohartarazi duenez, "banderadun, gastadore, eta kantinerentzat plaza mugatuak egongo dira".



EKAINAREN 28AN IZANGO DA, GOIZEKO 10:00ETATIK AURRERA.

Gogoan izan bestalde, Santixabeletako egitarau diseinu lehiaketara lanak aurkezteko epea azken txanpan dela. Interesdunek maiatzaren 25a dute lanak entregatzeko azken eguna.

Informazio gehiago: 943 371 999 edo emailez: kultura@usurbil.net

# Buruhandi tailerreko erakusketa

Maiatzaren 24an osteguna, arratsaldeko 18:00etatik 19:30era, buruhandi tailerretan egiten ari diren lanak jasoko dituzte Sutegiko erakusgelan, ondoren erakusketa bat antolatzeko. Erakusketa bertan egongo da ikusgai, ekainaren 1 arte.

Ekainaren 1ean, gainera, Txan Magoa frontoian arituko da 16:30ean. 18:00etan txokolatada egingo da eta 19:00etan buruhandi desfilea herrian barrena trikitixarekin.

Ekainaren 2an, aldiz, azoka egingo da (ikus ale honetako Ika-mika atala, 4. or). Haur Eskolan, Kalezarren, goizeko 10:00etan hasita.

Antolatzailea: Hitz Aho.

## Ikastolaren Eguneko bazkaria

Ekainaren 3an izango da aurten. Bazkarirako txartelak aldez aurretik erosi behar dira Ikastolako idazkaritzan.

## Enjoy English udalekuak

Enjoy English udaleku irekiak antolatu dituzte Udarregi Ikastolan, ekainaren 27tik uztailaren 24ra. 5-11 urte arteko haurrei zuzenduak egongo dira, astelehenetik ostiralera, 9:00-13:00 artean. Ekimena gauzatzeko ordea, gutxieneko taldea osatu beharko da.

## Bertso Jaialdia Udarregin

Ikastolan urtero egiten den Bertso Jaialdia egunez aldatu da. Maiatzaren 24an ostegunarekin iragarria zegoen, baina orain maiatzaren 28an astelehenez egitea erabaki da, arratsaldeko 17:30ean.

## Ate irekien eguna

Datorren ikasturtean Lanbide Eskolara ikastera joan asmo dutenentzat hitzordua: larunbat honetan, goizeko 11:00etan.

## Bilera eta irteera Antxomolantxaren eskutik

Ezohiko bilera deitu du Aginagako Antxomolantxa Elkarteak, "gai garrantzitsu bat jorratzeko". Bilkura, maiatzaren 23rako deitu dute, 18:30ean Aginagako ludotekan. "Eskertuko genuke ahalik eta jende gehien azaltzea, bertan erabaki zehatzak hartu beharko ditugulako", ohartarazi dute. Bestalde, maiatzaren 26rako, Astigarragako Listorreta ingurura doaz. Guraso eta haurrei zuzenduriko irteeran izena emateko aukera dago hilaren 23ra arte, hona deituz: 610 875 287.





# 30 urtez, Usurbil-Arantzazu bidea egiten

**Nork esango zien zazpi herritarrei, besteak beste Joxe Mari Arrospideri, duela hiru hamarkada Usurbildik Arantzazura oinez joaten hasi eta ohitura hark gaurdaino bizirik mantenduko zutenik. Hala izan da ordea. Edizio guztietan hutsik egin ez duten hiru usurbildar badira, baina asko dira bidera bildu zaizkienak. Usurbildarrak bakarrik ez, baita inguruetakoak ere. Azken urteotan, belaunaldi berria ere hasi da parte hartzen. Erreleborik badu beraz, usadio honek. 35 lagun bildu dira aurten, eta herritarrei parte hartzera animatzen diete. Arantzazurako hitzordua, urtero moduan, hurrengo Ostegun Santuan: goizeko 5:00etan frontoi atzetik abiatuta.**

**NOAUA! Zenbat lagun bildu zarete aurten?**

**Joxe Mari Arrospide.** 35 lagun. Koadrila ona. Oso ondo ailegatu gara. Lagun bat falta zaigu, baina gainerako hirurak urtero joan gara, baita aurten ere. Tartean, 83 urteko herritarra. Aurten, baita zortzi emakume ere.

**JOXE MARI ARROSPIDE**

“Villabonatik eta Tolosatik ere talde polita etortzen zaigu. Baita Donostiatik, Igeldotik…”

**N. Ibilbidea ordea 30 aldiz egin duzuenak gutxi batzuk zarete?**

**J. M. A.** Migel Arrastoa, Asteasuko Oiloetxe fenomenoa eta ni.

**N. 30 urtez, ohitura hau nola mantendu duzue bizirik ?**

**J. M. A.** Gustatu egiten zaigu mendia eta ilusio handiarekin hasi eta hortxe segi dugu, aurrera beti. Aldez aurretik ibili, pixka bat prestatu eta giro oso ona izaten dugu. Eta hala mantentzen dugu.

**N. Zer prestakuntza eskatzen dizue Usurbildik Arantzazura oinez joateak?**

**J. M. A.** Asko ibili behar da aurretik. Izaten dira gutxi ibilitako urteak eta orduan asko egurtzen da gorputza. Aurretik ondo ibiliz gero, hamar edo hamabi orduko ibilbideak eginda, erritmoa hartuta ondo joaten zara. Usurbilgo jendeak asko egiten duena da, Erniora joan eta etorri. 8-9 orduko 40 kilometroko ibilbidea da. Arantzazukoa berriz, 60 kilometrokoa.



AURTENGO IBILBIDEAN PÀRTE HARTU DUTEN MENDIZALEAK.

**N. Usurbildik bakarrik ez, beste lekuetako jendea ere biltzen da?**

**J. M. A.** Bai, lehen Zarautz eta Oriokoak. Villabonatik eta Tolosatik ere talde polita etortzen zaigu. Baita Donostiatik, Igeldotik…

**N. Aurpegi ezagunen bat joan izan da zuekin Arantzazura. Nor da eta nolatan animatu izan da?**

**J. M. A.** Martin Berasategi sukaldaria. Gurekin ibiltzen da mendian, mendia gustatu eta esplikatu genion nola joaten ginen eta joan behar zuela eta gurekin zazpi urtean joan izan da. Gero iluntzean bere etxera afaltzera joan izan gara. Harreman handia egin dugu ordutik. Oso ondo portatzen da gurekin, bezeroa dugu gainera.

**N. Ibilbidea egiten duzuenok ospatzeko biltzen zarete gero?**

**J. M. A.** Santueneko elkartean bildu gara aurten. Batean Tolosan, bestean Villabonan, Donostian, baten batek soziedadea baldin badu han egiten dugu. Kantu eta bertso giro ederrean egoten gara.

## “Segi behar dugu, gai garen bitartean”

**NOAUA! 25. urteurrenean, ibilbidea beste bost aldiz egiteko prest zineten. Orain baita?**

**Joxe Mari Arrospide.** Oraindik bai. Oraindik segi behar dugu, gai garen bitartean.

**N. Zuen ibilbidea baldintzatu duena eguraldia izan da. Hasi abuztu batean hasi zineten, baina gero Aste Santura aurreratu egin zenuten.**

**J. M. A.** Ibilbide luzea da beroarekin ibiltzeko. Errepidean ere 14 kilometro dira. Beroarekin gaizki ibili ginen eta aurreratu egin genuen. Orain, hobeto. Aurten ere beldurra genuen, eguraldi txarra iragarria zegoen, baina ez. Zumarragatik Legazpira bitartean aterkiarekin, baina gainerakoan oso ona egin digu. Izan dugu eguraldi txarra, Usurbilen aterkia ireki eta Legazpian itxi beharra. Zazpi lagun ginen orduan, lehen urteak ziren.

**N. Zeinek esan 30 urteren ostean ohitura mantenduko zenutenik?**

**J. M. A.** Poz handia hartu dut, gazteak sartu direlako. Segi beharra dago. Gertatzen dena da, Aste Santuan dela. Batzuk oporretara joan nahi eta aukeratu egin behar. Lehen Larunbat Santuan joaten ginen baina gerora Ostegun Santura aurreratzea erabaki genuen.

# Belaunaldi berria, ohiturarekin jarraitzeko prest

**NOAUA! Nolatan animatu zineten Usurbil-Arantzazu ibilbidea egitera?**

**Joxemi Otaegi.** Mendian ibiltzen hasi ginen eta aukera zegoenez, animatu ginen, duela bost urte.

**Luis Ugartemendia.** Taldean mendian ibiltzen hasi ginen. Antolatua zegoen martxa luze bat egiteko aukera ikusi genuen. Hemen jarraitzen dugu, mendian ibiltzea gustatzen zaigulako eta giro ona sortzen delako. Ondo antolatzen dute eta gustura joaten gara gu.

**N. Giroak ere bultzatzen du ezta, hasi eta segitzera?**

**L. U.** Ez da azkar joan beharreko martxa bat. Azkarrago joaten garenak aurreratzen gara, baina gero puntu batean elkartzen gara berriro denak.

> **LUIS UGARTEMENDIA**
>
> "Gutxi ibilita dagoenarentzat luze egiten da. Bestela, ibilbideak berak ez du zailtasun handirik"

**N. Zuek ohitura honekin jarraitzea gustatuko litzaieke beteranoei. Asmoa bai?**

**L. U.** Bost urte egin ditugu, baina nik uste beste bost urtez jarraitzeko arazorik gabe izango garela. Eta gehiago ere bai seguru asko.

**J. O.** Sasoian baldin bagaude, hor ibiliko gara. Jendea biltzen bada behintzat.

**N. Ibilbide honek zer prestakuntza suposatzen dizue?**

**J. O.** Ibili egin behar. Hasi ginen Gipuzkoako bira egiten. Igandero, sei eta zortzi orduz ibiltzen. Gero aukera hau atera zen, probatu eta gustatu zaigu.



DUELA BOST URTETIK HONA EGITEN DUTE USURBIL-ARANTZAZU IBILBIDEA.

**L. U.** Ibilbideak zailtasunik ez du, behin Zelatun igoz gero. Gero azken aldapa dago, Katabera deitzen diotena, mitikoa. 63 bat kilometro, eta ordu asko dira. Gutxi ibilita dagoenarentzat luze egiten da. Bestela, ibilbideak berak ez du zailtasun handirik.

**N. Mendizaletasuna aspaldikoa da inguruotan. Zer esan Arantzazuko bidea egitera animatu ez direnei?**

**J. O.** Animatzeko. Ez dela zaila. Ez da lasterketa bat, bakoitza bere martxan joan daiteke.

**L. U.** Animatzeko, erronka polita dela. Tolosan 14 orduko ibilbidea jartzen dute, eta 3.000 lagun biltzen dira. Hemen, 63 bat kilometro urtero egiten dira eta 35 lagun. Gainera autobusa jartzen da eta bidean, Mandubian hamaiketakoa eta Legazpiko Aizkorri tabernan bazkaria egiten dugu. Ibilbide osoa egin ezin duenak, erdibidean autobusa dago baita. Erraztasun asko ditu alde horretatik.

### Hitzordua, Ostegun Santuan

**Irteera eguna:** Ostegun Santua.
**Hitzordua:** 5:00, frontoi atzea.
**Luzera:** 63 km +/- (14 bat ordu).
**Ibilbidea:** Usurbil, Andatza, Ziortzako langa, Andatzarrate, Zelatun, Bidania, Santa Ageda, Murumendi, Kizkitza, Zumarraga, Legazpia, Udala, Aizkorri, Arantzazu.

### ESKUBALOIA KIROLDEGIAN

**2012/05/18, ostirala:**
**Kadete mutilak, Gipuzkoako Kopa. 19.00h.**
Usurbil K.E. - La Salle Saieko

**2012/05/19, larunbata:**
**Kadete neskak, Gipuzkoako Kopa (SEMIFINALA). 13.00h.**
Usurbil K.E. - Urnietako KE

**Jubenil neskak, Gipuzkoako Kopa. 16.30h.**
Usurbil K.E. - Aiala Zarautz KE

**Jubenil mutilak, Gipuzkoako Kopa. 18.00h.**
Usurbil K.E. - Amenabar Zarautz KE

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859 eta 943 36 13 80
BORDA-BERRI 5,baxua USURBIL

# Agenda !!

## Maiatzak 18 ostirala

- **San Juan jaiak. Bilera** Haraneko lokalean, gurasoek deituta. 16:45.

## Maiatzak 19 larunbata

-**Ate irekien eguna Lanbide Eskolan.** 11:00etatik aurrera.

- **"Goazen plazara"** Dema plazan, 19:30ean.

## Maiatzak 20 igandea

- **Sagardo Eguna.**

- **13:00etan, elkarretaratzea** Mikel Laboa plazan Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak deituta.

## Goardiako farmaziak

**Maiatzak 17, osteguna**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 18, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Maiatzak 19, larunbata**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 20, igandea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 21, astelehena**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

**Maiatzak 22, asteartea**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

**Maiatzak 23, asteazkena**
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

**Maiatzak 24, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Maiatzak 25, ostirala**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 26, larunbata**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Maiatzak 27, igandea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

***GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ***
***Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani***
***Telefono zenbakia: 943 552 087.***
***Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA 25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)***

# Larunbat honetan, argazki handi bat egiteko deialdia

**Herrira mugimenduak lanean jarraitzen du. Etengabean. "Goazen plazara" izeneko ekimena iragarri dute asteburu honetarako. Era honetan, Euskal Herriko plazetara ateratzeko deialdia zabaldu dute. Euskal presoak Euskal Herrira ekarri, gaixo dauden presoak herriratu eta bizi osorako espetxe zigorrik ez egotea eskatzeko. Usurbilen, Dema plazan egingo da, larunbat honetan arratseko 19:30ean.**

Usurbilgo Herrira mugimenduak ere bat egin du maiatzaren 19rako egin den deialdiarekin. "Goazen plazara!" ekimenarekin bat eginez, argazki erraldoi bat atera nahi dute. Arratsaldeko 19:30ean jarri dute hitzordua Dema plazan. Helburua "Presoak Herrira" hitza osatzea izango da eta horretarako ahalik eta herritar gehien biltzea komeni da. Hitza osatzean argazkia aterako da, argazki handi bat hain zuzen ere.




HITZORDUA, DEMA PLAZAN, ARRATSALDEKO 19:30EAN.

## Ostiral honetan, San Juan jaiak prestatzeko bilera

Santixabel jaiak baino lehen ospatuko dira San Juanak. Eta Kalezarreko guraso talde bat lanean da duela aste batzuetatik hona. Ostiral honetan beste bilera bat deitu dute eta, noski, auzotarrei irekita dago. San Juan jaien inguruan hitz egiteko bilduko dira, maiatzaren 18an ostirala, 16:45ean Haraneko lokalean.

## Asteburu honetan abiatuko da Usurbil Cup txapelketa

35 talde apuntatu dira aurten. Guztira, 350 bat gaztetxo arituko dira futbolean; ostiralean hasi eta asteburuero, ekaina amaierara arte. Usurbil Futbol Taldetik ohartarazi dutenez, "derrigorrezkoa da talde bakoitzak 18 urtetik gorako pertsona bat izatea aulkian eserita. Bestela, ezingo dute partida jokatu".






### ETXEBIZITZA

- 3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.
-Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com
-Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650euro. Tf: 667 438 145.
- Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, loralegia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)
- Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairukoa, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914
- Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.
- Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berritua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.
- Etxebizitza alokatzen da Usurbilen. 3 logela, bi bainu gela, sukalde eta salarekin. 626 347 914.
- Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezeta. 943370957.
- Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
-Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
-3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara,igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
-Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kapritxozko Citroen Saxo salgai premiazkoa 2.200 euro. SS-BH, sekula istripurik izan gabea. Ondo zaindua eta gehigarri batzuk opari: bolante deportiboa eta erruberak zabaltzeko piezak. 609 928 387.
- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Sukaldari bat behar dugu, Xarman. 943 368 771.
- Selektibitatea prestatzeko klaseak jaso nahi ditut martxoan eta apirilean, bi alor hauetan: Matematika (zientzietakoa eta letretakoa) eta Marrazketa teknikoa. Deitu, mesedez, telefono honetara: 665 748 723.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

#### Lan-eskaintzak

- Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).
- Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.
- 18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerreko lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
-Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
-Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.
-Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
-Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
-Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
-Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
-Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Mutil baten txamarra, talla 10-12, galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.
- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Egoera onean dauden kanping kanadienseak jasoko genituzke. ziortzage@gmail.com
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon"en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpinean. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.
- Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen WII-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaitsitako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen,ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.



Zure esku trebeekin egindako lanak ikusteko parada izan dugu elgarretaratzean. Gure esku ez hain trebeekin zure belarriak astindu nahi ditugu, hori bai, goxo-goxo. **Zorionak Olatz!**



Etxeko dantzari txikiak dagoeneko 6 urte beteko dizkigu. **Zorionak txapeldun!** Etxekoen partez.



**Zorionak June!** 9 urte bete dituzu, muxu handi bat ama, aita, lagunak eta senideen partez.



**Zorionak Jon,** San Ixidro egunean ospatuko dugu zure bigarren urtebetetzea. Muxu handi bat etxeko partez! Bejondeizula txapeldun!!



**Zorionak Lide eta Intza!** Maiatzaren 18an urte bat betetzen dezutelako. Muxu potxolo potxolo bana familiaren partez.

### HILDAKOAK

Joxe Intxausti Azurza
**82 urterekin, maiatzak 10**












# txinparta

sagardotegia

Eguneko menuak, pintxoak, ogitartekoak, razioak

Illarra Berri, 2 (Igara) DONOSTIA 943 22 47 00

# TXOTX!!



AIALDE BERRI
Tel: 943 365 031
Santuenea




LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirildra
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867




SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL · Tel 943 37 39 95
www.sidrassaizar.com




ELUTXETA
SAGARDOTEGIA · ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81




ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Sagardo ekologikoa
Arratzain Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL




✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com




AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel eta Faxa: 943 36 67 10
Tel: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com

# 2012

# N!!Sagardoeguna

gehigarri berezia




WELLA
INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA
·AURPEGIAREN GARBIKETA + INGLEEN ETA BESAPEEN DEPILAZIOA 45€
·AURPEGIAREN GARBIKETA + MANIKURA + PEDIKURA 59€
·AURPEGIAREN GARBIKETA + MASAJEA 49€
Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu
Nagusia 8. USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)


Aguirrezabal
Estankoa
Ondo pasa
Sagardo egunean
kale Nagusia, 27.
✆ 943 361 110


osu
serigrafia
serigiosu@serigrafiaiosu.com
·kamiseta inprimategia
·pegatinak
·iragarki nahiz industri serigrafia
·laneko arropak
·enpresa opariak
·boligrafoak
·txiskeroak
·laser markaketak...
www.serigrafiaiosu.com
Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

# HIRU JAI GUNE, ZINTZURRA BUSTI ETA SABELA POZTEKO

**Heltzear da maiatzeko hirugarren igandea, usurbildarrentzat kuttunena den jai eguna, bisitarientzat erakargarri bihurtzen dena. Inoizko sagardo postu eskaintza zabalena izango da aurten. Edalontzia erosi eta jai giroan murgiltzeko ordua da.**

**Jexux Artzeren omenez txalapartariek girotutako hasiera ekitaldia izango da eta, aurtengoan, eskubaloi taldeak biltzen dituen Usurbil Kirol Elkartea omenduko dute Sagardo Egunaren Lagunak taldeko kideek. 50 urte betetzen baititu kirol elkarteak 2012 urte honetan. XXXI. Sagardo Eguneko jai giroa une horretan lehertuko da.**



Hortik aurrera, sagardo botilak ireki eta husten joango dira bazkalordura arte. Usurbildar zein bisitariek, aurten inoizko postu kopuru handienetik barrena osteratxoa egiteko aukera izango dute. Jaialdi hau antolatzeaz arduratzen diren Sagardo Egunaren Lagunak taldeko kideen arabera, 48 bat postu egongo dira, hiru guneetan banatuta; herriko baserritar eta sagardogileenak frontoian, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartekoak Dema plazan eta Eusko Labelen sartuta daudenak Askatasuna plazan.

Azken plaza horretatik mugitu gabe, edan bakarrik ez, jatekoa ere izango da. Parrillan egindako oilasko pintxoak zerbitzatuko dituzte. Honez gain, bada aurtengo ediziorako antolatzaileek berreskuratu duten ekitaldi bat; usurbildar sagardo botatzaileen lehiaketa. 12:00etatik aurrera ospatuko da frontoian.

**Erromerian, Fan & Go taldea**

Jai giroa ziurtatua egongo da egun osoan. Goizean, Zumartxan txarangakoak ibiliko dira kalejiran. Eta bazkalostean, Zestoako Laranjadi txaranga arituko da.

Ondoren, Fan & Go taldearekin erromeria frontoian. Eta nahi edo ahal duenak jai giroan jarraituko du gaueko ordu txikiak arte. Ohikoa den moduan hain zuzen, hainbat herritarrek lantokian astelehena jai egitea eskatua izango baitute. Ondo pasa guztiok!

## ESKUALDE MAILAKO ELKARRETARATZEA

Urtero moduan, euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko da Sagardo Egunean. Ohiko hitzordua izango du, 13:00etan Mikel Laboa plazan. Mobilizazioa, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deitu du.

# TXOTX.INFO, EUSKAL HERRIKO SAGARDOTEGIEN BILATZAILEA

**2012ko sagardo garaiaren irekiera ekitaldian zabaldu zen albistea. Euskal Herriko sagardotegien bilatzaile bat jarri dela martxan. Mekanika errazekoa, modu arinean topatuko dugu bilatzen ari garena.**

***Eserita afaldu nahi dut. Familiarekin joateko egokia eta, ahal bada, umeentzako menua eskaintzen duen sagardotegi batean.*** **Erantzuna txotx.info web orrian topatuko duzu. Etxeko ordenagailutik edota gailu mugikorretik, oso pauso gutxitan, bilatzen ari zaren sagardotegi hori aurkituko duzu.**

*Sagardoa, non eta nola.* Esaldi hori ageri da web orrialdearen goiburu gisa. Ohiko bilatzaile baten funtzioa betetzen du. Hau da, oinarrizko informazioa jaso daiteke bertan. "Usurbil" aukeratu eta herriko sagardotegien datu praktikoak agertuko dira. Baina bilatzaile honek, xehetasun gehiago eskatzeko prestatuta dago.

Ezaugarriak atalean, hauek dira eskaintzen diren aukerak: *Sagardoa txotx eran, Zutik jateko aukera, Ohiko menua, Haurrentzako menua, Menu begetarianoa.*



TXOTX.INFO WEB ORRIAREN ATARI NAGUSIA.

Zerbitzuak atalean, *Upeltegira bisita, Kata gidatuak* edota *Sagardoaren erosketa* egiteko aukera dutenen artean.

Demagun, garraioaren arabera aukeratu nahi dugula: *Oinez, Kotxez, Autobusez, Mikrobusez, Lineako autobusez, Trenez.* Aukeren artean bat zehaztu eta aukeraketa horren baitan, eskura ditugun sagardotegiak agertuko zaizkigu.

*Sagardoa, non eta nola* aukeratzeko, aparta.

## EUSKAL HERRIKO EKOIZLEEN DATUAK

Web orria aurten jarri da martxan eta aurkezpenean esan zenez, "Euskal Herria osoan euren edariak ekoizten dituzten sagardogileen datu zehatz eta egiazkoak lortzeko bilketa lan handia burutu da". Euskaraz eta gazteleraz egin daitezke bilaketak.


Ondo pasa
Sagardo egunean!!
ANTXETA
jatetxea
eguneko menuak
karta
plater konbinatuak
ogitartekoak
pintxoak
igandetan menu berezia
Ospakizunetarako toki aproposa!
Eguzkitza, 4 • tel.: 943 37 03 44


Auto Guria
Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak
Osinalde, 9• USURBIL (Gipuzkoa)
✆ 943 363 298 • Faxa: 943 363 862


URDAIRA
Sagardotegia
Sagardo naturala
Aginaga
943 37 26 91


LATAILLADE
ITURGINTZA
Ondo pasa sagardo egunean!
Iturgintza, gas, berogintza eta klimatizazioa
INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUAK
ARISTITXO B BEHEA
943 363 348 · 609 888 021

# “OSO INTERESGARRIA ZAIGU SAGARDO EGUNETAN PARTE AKTIBOA IZATEA”

**1977an sortu arren, lehenagotik hasitako ibilbideari jarraitu dio Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak. Bertako kide Unai Agirrek NOAUA!ri adierazi dionez, “diotenez askoz lehenagotik jada sagardogileak elkartzen ziren beren interesen alde, zituzten beharrak asebetetzeko”. Egun, 50 sagardotegi biltzen dira elkartean, tartean, Usurbilgo Arratzain, Aginaga, Saizar eta Urdaira eta Zubietako Araeta eta Astiazaran. “Sektorearen interesen alde lan egiten duen elkarte bat da”, adierazi du Agirrek. Igande honetako Sagardo Egunean parte hartuko dute.**

**NOAUA! Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen sorrera nolakoa izan zen?**

**Unai Agirre.** Historia oso luzeko elkarte bat dela esan genezake. Ofizialki 1977an sortu bazen ere, askozaz lehenagokoa da, sagardoaren historia oso luzea den bezalaxe. Gaur egun, Gipuzkoa osoko 50 sagardotegi ditugu elkartean, eta tartean, lau Usurbilgoak eta beste bi Zubietakoak. Elkartearen barruan egitasmo asko ditugu; sagardoaren promozioa, sagardogileen interesen aldeko defentsa, I+D proiektuak, komunikazioa, turismoa... Sektorearen interesen alde lan egiten duen elkarte bat da.

**N. Zer modutan gauzatuko da zuen parte hartzea igandean?**

**U. A.** Gipuzkoan esan genezake 70 bat sagardo egun eta sagardo dastatze egiten direla. Sektorerako oso garrantzitsuak dira halako sagardo egunak, sagardoaren promozioa egiten dutelako, sagardoa herritarrengana inguratu eta dastatze hori kalera ateratzen delako. Elkartetik lagundu bakarrik ez, oso interesgarria zaigu bertako parte aktiboa izatea. Gure ahalegin berezietako bat da, botilako sagardoa behar den lekuan jartzea. Sagardo Egunaren Lagunak taldekoekin kolaboratzen dugu. Aurten elkarte bezala bi gauza egingo ditugu; maiatzaren 18an, kata interesgarri bat izango da Saizar sagardotegian. Alemaniako sagardogile batzuk datoz, Hess eskualdetik. Hango eta hemengo sagardo kata bat egiteko modua izango da. Hori zuzentzen egongo da Saizarko enologoa bera, Fernando Vadillo, aditua sagardo eta ardo munduan. 20:00etan hasiko da eta afarian zehar segituko du katak. Prezioa, afari eta guzti, sagardotegiko menuarekin, 29 euro. Nahi duen edonorentzat, irekia izango da. Interesatuek Saizar sagardotegira deitu eta lekua hartu.



UNAI AGIRRE SAGARDOGILEEN ELKARTEKO KIDE DA.

**N. Sagardo Egunean ere dastatze saioa izango al da?**

**U. A.** Askatasuna plazako bola-tokian egongo gara Gipuzkoako Sagardogileen Elkartekoak eta Guillermo Castaños enologoa, kata azkarrak ematen. Galderak egin, informazioa entzun eta sagardoa dastatzeko aukera izango da. Horrez gain, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko 30 sagardotegi egongo dira; betiko sagardo naturala, eta Eusko Label sagardoa egiten duten sagardotegiak egongo dira bi plazatan.

# HELBURUA ARGIA DA: “SAGARDOA AHALIK ETA KALITATE HANDIENEKO PRODUKTUA IZATEA”

**N. Zer nolako sagardoa dastatzeko aukera izango da igandean?**

**U. A.** Usurbilgo eta urteko lehen sagardo egun hauek gauza berezi bat izaten dute; bi uztatako sagardoa egoten dela. 2011ko uztako sagardoa egongo da gehienbat, botilaratu berria baina 2010ekoa ere bai postu batzuetan. Pentsatu, 30 sagardotegi; bakoitza mundu bat da. Sagardo Egunaren alderdi politena hori da, sagardo desberdinak probatu ahal izatea.

> **UNAI AGIRRE**
>
> “Sagardo Egunaren alderdi politena hori da, sagardo desberdinak probatu ahal izatea”


(ARGAZKIA: GIPUZKOAKULTURA)

**N. Zuen presentzia geroz eta nabarmenagoa da. Nola bizi duzue hedapen prozesu hau?**

**U. A.** Ahalegin handia egiten ari gara geroz eta presentzi gehiago izateko leku desberdin gehiagotan eta beste modu batzuetan. Helburua azkenean, sagardoari buruz hitz egitea, sagardoa ahalik eta kalitate handieneko produktua izatea, kontsumitzaileak sagardoa zer den ulertzea da. Horretarako Sagardo Egunak eta ekimen gehiago, erreferente onak izan daitezke. Herri askotan jende asko dago lan egiten duena eta plataforma horiek baliatu behar ditugula uste dugu, laguntzeko eta guk ere laguntzen ditugun neurrian, indar gehiago har baitezakete.

## “ZERBITZU BATZUK EMATEN SAIATZEN GARA”

**NOAUA! Usurbilen ez ezik, beste hainbat ekimenetan ere ari zarete parte hartzen, ezta?**

**U. A.** Zerbitzu batzuk ematen saiatzen ari gara, adibidez, sagardo egunetako sagardo guztia guk biltzen dugu Astigarragan, elkarte ondoan, handik jendeak ekarri eta eraman ahal izateko.

Gero lekuetan ere eskaintzen ari gara katak, enologo bat edo biren eskutik joaten gara herri desberdinetara, sagardoaren nondik norakoak azaltzeko. Saizarren egingo dugun bezalako dastatze desberdinak egiten ari gara, ekimen desberdinak egin nahi ditugu. Sagardoa beste produktu batzuekin uztartu nahian ere ari gara, agian bertako elikagai batekin dastatzeak egiteko.

Aukera desberdinak daude, baina garbi dagoena da gauza guzti hauek berritu, egokitu eta hobetu behar ditugula. Gauza berriak sartzean eta eskaintza zabalduta, promozio guztia eta hemen egiten den lan guztia hobetzen da.

# “GURETZAT OSO GARRANTZITSUA DA ELKARLAN HAU ETA AURRERA SEGITZEA”

**Duela urte batzuetatik hona, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea saiatu da tokian tokiko sagardo egunekin lan egiten. Baina hainbat herritan, talka egin zuten elkarteak eta herri ekimenek. Aurten, elkarlanean antolatu da Sagardo Eguna Usurbilen.**

**NOAUA! Sagardo Egunaren inguruan ikuspuntu desberdinak zeuden duela urte batzuk. Bide bat jorratu da orain arte, zer balorazio egin dezakezue?**

**Unai Agirre.** Duela hiruzpalau urte, sagardo dastatzeak egiten ziren 70 tokietan, nolabait zer hobetu zitekeen ikusi, guk ere zerbitzu bat eskaini eta gauza batzuk eskatu behar zirela planteatu zen elkartean. Normala den bezala, horrelako ekimenak urte askotan egiten diren lekuetan zerbait planteatzen hastean, talkak egoten dira. Horiek konpontzen ari gara, eta guk eta antolatzaileek ikusten dituzten aldaketekin, etorkizunean elkarlanean gauzak geroz eta hobeto egiten joatea nahi genuke. Logika horren barruan ulertu behar da egin den guztia. Sagardo egun hauetan izugarrizko lana egin dute eta sektoreak bere baldintzak jartzea ere normala da, elkarlan horretan. Inplikazio handia izan behar du sektoreak. Izan ditugun desadostasun horiek badirudi pixkanaka konpontzen ari garela. Normaltzat hartu behar dugu, eta guretzat garbi utzi oso garrantzitsua dela elkarlan hau eta aurrera segitzea. Eta zutabe hauekin, nik uste aurrera egingo dugula.


Herri ezberdinetan, “Sagardo egun hauetan izugarrizko lana” egin dela aitortzen du Agirrek.

**N. Sagardo marka desberdin berriak ikusi ditugu azken aldian, sagardotegi bakoitzak bere erabakiak hartu ditu. Zuek zer ikuspuntu duzue?**

**U. A.** Ikuspegi bat ematea konplexua da. Sektore hau dinamikoa da eta azken aldian asko aldatzen ari da. Une honetan, guk elkartean 50 sagardotegi ditugu, 50 marka pribatu eta euren guztien interesen alde egiten dugu, eta Euskal Herria kontuan hartuko bagenu 90-100 sagardotegi inguru daude, beraz 100 sagardo marka desberdin. Horrez gain, esan behar dugu, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako 26 sagardotegik Eusko Label produktua sortu dutela, gaur gaurkoz Euskal Herriko zertifikatutako sagardo bakarra. Eusko Labela %100 bertako sagarrarekin egiten da, beste sagardo asko bezala, baina honek ziurtagiri bat dauka. Eta bide honetan, urte gutxiren buruan jatorri izendapena izango du sagardoak interesa duten sagardogile guztiontzat, hau da, Europar mailako ziurtagiri bat, %100 bertako sagarrarekin egindako sagardoarentzako.

# “KONTSUMITZAILEAK BALORATUKO DU, BAINA EUSKO LABELAREN HASIERA POSITIBOA IZAN DA”



**NOAUA! Eusko Label markak jorratu duen bidea zer modutan baloratzen duzue?**

**Unai Agirre.** Garbi utzi beharra dago, Eusko Label marka elkarte barruan oraingoz gutxiengoa da. 16 sagardotegi daude, eta hauek beren produkzioaren zati bat egiten dute Eusko Label barruan, Euskadiko 26 sagardotegien artean, 2011ko uztan, 800.000 litro inguru. Batzuk gehiago besteak gutxiago. Oso positiboa da hasiera, pauso batzuk eman dira egitasmo berri baten alde.

Nire ustez sektoreak halako zerbait behar du, baina oso garbi utzita sagardogile bakoitzaren eta enpresa bakoitzaren aukera dela egitea edo ez egitea. Balorazioa? Atera da eta jendea ezagutzen hasi da. Produktuak kalitatezkoak dira, 16 sagardotegi baditugu Gipuzkoan, Euskadin 26, bakoitzak produktu diferentea egiten du. Kontsumitzaileak baloratuko du, baina hasiera oso positiboa izan da. Eta interesa duten neurrian, denborarekin sagardotegi gehiago sartzen joango direla uste dut.

# “ETORKIZUN IZUGARRIA IZAN DEZAKEEN PRODUKTU BAT DUGU”

**Krisiak jota igaro ditugu azken urteak. Sektore guztietan igarri da, baita ostalaritzan ere. Eta sagardotegiak ez dira larritasun horretatik salbu egon.**

**NOAUA! Txotx denboraldia amaitu berri da. Zer moduz joan dira hileok?**

**Unai Agirre.** Krisi garaian baldin badago mundu guztia, sagardotegiak ez dira izango salbuespena. Krisia nabaritzen ari da sagardotegietan ere, baina ez da izan txotx denboraldi txarra. Batzuk okerrago pasa dute, beste batzuk hobeto. Egia da aldaketa batzuk nabaritzen ari direla, krisia bukatuta ere hor segiko dutenak. Batik bat, esan digutenaren arabera, jendearen ohiturak aldatzen ari dira, bertako kontsumitzaile asko asteburuetan mugitzen dira. Aste tartean jende gutxiago dabil. Halere, sektoreak ere mugitu beharko dugu eta garai berrietara egokitzen joan.

> **UNAI AGIRRE**
> “Sagardoaren historiak asko eskaintzen digu. Oraindik kultura hori bizirik dago herrietan”

**N. Turismoaren eta prestakuntza alorrei loturiko egitasmoak esku artean dituzue. Zeintzuk dira ardatz nagusiak?**

**U. A.** Etorkizun handia izan dezakeen produktu bat dugu, baina bere alde promozio lan handia egin behar dugu. Horretan ari gara. Elkarte barruan uste dugu, sagardoa eta sagardotegiekin badagoela produktu oso interesgarria hau guztia garatu ahal izateko; turismoa eta aisialdia. Beste modu bateko eskaintza bat eman behar diogu beste modu bateko bisitariari. Hortik doa, bisitarientzat sagardotegiak turismora egokitzeko bide guzti hau. Pauso batzuk ematen ari gara; sagardotegiak bisita gidatuentzat egokitzeko, salmenta zuzena bultzatzeko, sagardotegi eta udalerrietan sagardoaren kultura zabaltzeko... Horren guztiaren barruan turista ere sartzen dugu. Hona datorren bisitaria sagardotegia edo sagarraren kultura ezagutu gabe ez dadila joan. Baina hor uste dugu garrantzitsua dela, sagardotegiez gain beste eragile batzuk ere sartzea; tartean, udaletxeak eta bestelako taldeak. Lan handia da, baina, ondo egiten badugu, merezi duen zerbait izango da.


Sagardoaren alde, “promozio lan handia egin behar dugu”.

**N. “Saltzen” ikasi behar?**

**U. A.** Ikasi behar da, baina nik uste produktuak berak aukera asko eskaintzen dituela. Sagardoak, bere historiak... asko erakusten digu. Milaka urtetako kultura hori oraindik bizirik dago herrietan, eta aurrera atera behar dugu.

# BI SAGARDO DASTATZE AURTENGO EDIZIOAREN BUELTAN

**Sagardo Eguneko egitarauaren baitan bada berrikuntzarik aurtengoan; bi "kata" saio antolatu dituzte Sagardo Egunaren Lagunak bilguneko kideek. Lehenengoa ostiral honetarako Saizar sagardotegian. Bigarrena igandeko Sagardo Egunean bertan.**

XXXI. Sagardo Egunean, Askatasuna plazara gerturatzen denak jan edana izango du noski, baina baita bestelako berrikuntzarik ere. Bola-tokian sagardo dastatze azkarretan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek. Taldeka, bola-tokian, sagardo desberdinak edan, eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko kideekin batera egongo den Guillermo Castaños enologoak edari preziatuari buruzko azalpenak eskainiko ditu.



DUELA GUTXI, URNIETAN EGIN ZUTEN SAGARDO DASTAKETA.

## MAIATZAREN 18KOAN, ALEMANIAKO ZEIN BERTAKO SAGARDOA DASTATZEKO AUKERA

Sagardo Egunekoa ez da ordea, 2012ko edizio honi begirako dastatze saio bakarra izango. Aurreko astekarian iragarri bezala, ostiral honetan, maiatzaren 18an Alemania eta bertako sagardo desberdinak dastatzeko afaria antolatu dute Sagardo Egunaren Lagunak bilgunekoek, Saizar sagardotegian. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da Fernando Vadillo enologoak gidatuko duen saioa. Dastatze afaria irekia izango da, herritar ororentzat. 29 eurotan sagardotegiko menua dastatu eta aipatu moduan, sagardo desberdinak dastatzeko aukera izango da.

Bertara joateko asmoa duenak, deitu dezala Saizar sagardotegiko telefono zenbakira: 943 373 995.



MAIATZAREN 18KO KATA SAIZARREN IZANGO DA.

# SAGARDO BOTATZAILEEN BILERA

**Lan ugari izango dute igandean, sagardoa zerbitzatzen aritzeko asmoa duten herritarrek. Haientzat guztientzat, egin beharrekoaren nondik norakoak ezagutzeko bilera deitu du Sagardo Egunaren Lagunak bilguneak, ostegun honetarako, maiatzaren 17rako arratsaldeko 19:30etan Potxoenean.**

Antolakuntzatik gogorarazten dutenez, sagardo botatzaileek igande goizeko 8:00etan frontoian egon beharko dute prestaketa lanak egiteko. Txukun jantzita noski eta batez ere, Sagardo Egunaz gozatzeko gogoz. Lanak amaituta, eguerdian bazkaritarako bilduko dira, antolatzaile eta sagardo zerbitzari guztiak.



OSTEGUN HONETAN 19:30EAN, POTXOENEAN.







Hamaika
ikusteko, bizitzeko
LTD/Euskaltel
Ordenagailuan
Ipad/Tablet
Mugikorrean
Nazioa eskura
www.hamaika.tv

# EKITALDI BETE EGUN



**Maiatzak 18, ostirala**
**20:00** Alemaniako eta bertako sagardo dastatzea Saizar sagardotegian.

**Maiatzak 20, igandea**
**Goizean zehar,** Zumartxan txaranga kalez kale.
**11:30** Hasiera ekitaldia.
**12:00** Botatzaile txapelketa.
Bazkalondoan, Zestoako Laranjadi txaranga.
**17:00** Erromeria frontoian, Fun & Go taldearekin.
Eta gainera:
-Goizean zehar, herriko baserritarrak eta beste sagardogileak frontoian.
-Gipuzkoako sagardogileen elkarteko postuak Dema plazan.
-Eusko Labelean sartuta dauden sagardoak Askatasuna plazan.
-Parrillan egindako oilasko pintxoak Askatasuna plazan.
-Sagardo probaketa, Guillermo Castaños enologoarekin Askatasuna plazako bola-tokian.

Antolatzailea: Sagardo Egunaren Lagunak.




TXAPELDUN
TABERNA
Ondo pasa Sagardo egunean!
Pintxoak
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Muna lurra 2, USURBIL 943 11 82 53

zendoia taberna
Ondo pasa sagardo egunean!!
Kale Nagusia, 35
943 37 40 21

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK
OBRAK
BERRITZE LANAK
urdaintzi@euskalnet.net

Ondo pasa Sagardo egunean!!
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
izAgirre
ELEKTRIZITATEA

# SAGARDOZ BUSTIKO DA USURBIL KUTTUNA...

Sagardo txispaduna
edo ta leuna
kolore argikoa
bestela iluna
zapore ta txinparta
berezia duna.
Sagardoz bustiko da
Usurbil kuttuna
ondo pasa zazue
Sagardo Eguna!







Patri
jatetxea
Patri
jatetxea
943 36 27 25


Usurbil


Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 372 679
649 435 470
kale nagusia 47, behea A


Txiriboga
Ondo pasa
sagardo egunean!

# LUPIA SAGARDOTAN

**Sagardoarekin egin daitekeen errezeta erraz horietakoa ezagutu nahi?**

**Osagaiak:** Lupi xerra bat, azenario bat, porru bat, arbi bat, apioa, sagardo txorrota bat, 40 gramo mantekila, pare bat tipulin, perrexila, gatza eta piper beltza.

**Nola egin:** Padera batean tipulina sueztitu mantekilatan. Pixka bat egin denean lupi xerra jarri, gatza eta piper beltza bota eta irinetan pasatuta. Sagardoa bota eta barazkiak *julianan* moztuta eta buelta eman lupiari bi aldeetatik egiteko. Gatza eta esne gaina bota. Arraia egin denean, atera paderatik eta utzi saltsa sutan, pixka bat agortzen. Zerbitzatu lupia, saltsarekin eta perrexil txikitua gainetik botata.



SAGARDOETXEA.COM WEB ORRIAN AURKITUKO DITUZUE ERREZETA GEHIAGO.




ALDAMU
konponketak
ONDO PASA
SAGARDO EGUNEAN!
Nagusia 10 (atzekoaldea) 943 37 27 95


FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo
Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak
Ondo pasa
Sagardo egunean!
Ola Kalea, 12 - behea, ezk.
LASARTE - ORIA
Tel / Faxa: 943 370 306
fisioibaiondo@gmail.com


GOLDWELL
ELUMEN
mistoa
mistoa
Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrrak
943 361 951


edaritegia
BORDATXO
Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak
ondo pasa
Sagardo Egunean !!
Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42


XXXI.
Sagardo eguna
maiatzak
20
Sagardoaren txinpartak on egin dagigula denoi!
Usurbil
osasuna atez ate